



# **Egiaztapenerako ebaluazioa**

**Unibertsitate-titulu ofizialak (Gradu eta Masterrak)  
egiaztatzeko ebaluazio-protokoloa**

## SARRERA

Unibertsitateko ikasketa ofizialak antolatzen dituen 1393/2007 Errege Dekretua aldatzen duen 861/2010 Errege Dekretuan xedatzen denez, egiaztapenerako ebaluazio-prozesuetan parte hartu ahal izango dute Autonomia Erkidegoetako Legean zehazten diren ebaluazio-organoek, betiere Europako Batzordeak finkatutako kalitate-irizpide eta kalitate-estandarrek betetzen badituzte; kalitate-irizpide eta kalitate-estandar horiek betetzen dituztela egiaztatzeko, organoek kanpo-ebaluazio bat gainditu beharko dute eta, gaindituz gero, Goi Mailako Hezkuntzaren Kalitatea Segurtatzeko Europako Elkarteko (European Association for Quality Assurance in Higher Education –ENQA–) eskubide osoko kide izan daitezke eta Kalitatea Ebaluatzeko Agentzien Europako Erregistroan (EQAR) erregistra daitezke. Une honetan, prozesu horretan parte har dezakete honako agentzia hauek: ACSUCyL, ACSUG, AGAE, ANECA eta AQU Catalunya.

Ahalik eta adostasun-mailarik handiena lortze aldera, Unibertsitate Kalitatearen Agentzien Espainiako Sareak (REACU) egiaztapenerako ebaluazio-protokoloa prestatu du; lehen aipatu ditugun agentziak sare horretan bilduta daude. Agentzia bakoitzak aplikatu egin beharko du Gradu eta Masterreko titulu-proposamenak balioesteko garaian, betiere Unibertsitateen Kontseiluak egiaztatu aurretik ebaluazio-txostena nahitaez egin beharrekoa duten titulu-proposamenak badira.

Protokolo honetan, Gradu eta Masterreko tituluen 5.500 bat proposamenera egindako ebaluazioaren esperientzia biltzen da, eta titulu-proposamen orok bete beharreko gutxienekoak a priori betetzen direla bermatuko duten alderdi garrantzitsuenak aztertzeari eta balioesteari erreparatu nahi dio.

Ebaluazio-protokolo honen egitura bat dator egiaztapen-prozesua gainditu behar duen titulu-proposamen bakoitzari buruzko informazioa bidaltzeko unibertsitateek bete behar duten moduarekin; lehen aipatu dugun 861/2010 Errege Dekretuaren I. eranskinean zehaztuta dago modu hori. Hori horrela dela, hainbat alderdi orokor biltzeaz gain, ebaluazio-protokoloa hamar irizpidetan oinarritzen da eta ebaluazio-prozesua bideratuko duen jarraibide multzo bat txertatu da irizpide bakoitzerako. Horrek ez du

### Unibertsitate titulu ofizialak egiaztatzeko ebaluazio-protokoloa

esan nahi agenzia bakoitzak ezin duenik bere laguntza-gidaliburua prestatu, dokumentu honetan deskribatzen diren irizpide eta jarraibideak ebaluazio-prozesuan nola aplikatuko dituen zehatz-mehatz azaltzeko.

Egiaztapenerako ebaluazio-prozesuei ahalik eta koherentzia eta sendotasun handiena ematearren, agentziek protokolo hau etengabe aztertu eta berrikusteko konpromisoa hartu dute, titulu-proposamenak egiteko garaian lagunduko dien informazioa une oro eskura izan dezaten unibertsitateek.

## IRIZPIDEAK ETA JARRAIBIDEAK

Tituluak oinarrizko giza eskubideen eta berdintasun-eskubideen errespetua eta sustapena bermatu behar du, eta balio demokratikoak eta bake-kultura sustatu behar ditu. Ikasketa-planetan kontuan izan behar da edozein lanbide-jarduera honako hauek kontuan hartuz egiten dela:

- Oinarrizko eskubideak eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna errespetatuz, eta bidezko diren ikasketa-planetan eskubide horiei lotutako irakaskuntzak barne hartu behar dira.
- Giza eskubideak eta irisgarritasun unibertsalaren eta denontzako diseinuaren printzipioak errespetatuz eta sustatuz, eta bidezko diren ikasketa-planetan eskubide eta printzipio horiei lotutako irakaskuntzak barne hartu behar dira.
- Bake-kulturaren eta balio demokratikoen berezko balioak kontuan izanik, eta bidezko diren ikasketa-planetan balio horiei lotutako irakaskuntzak barne hartu behar dira.

### I. Irizpidea: Tituluaren deskribapena

Tituluak bere maila eta ondorio akademikoekin bat datorren deskribapen egokia izan behar du, eta ez du nahasterik eragin behar edukiari, norainokoari eta, hala badagokio, lanbide-ondorioei dagokienez.

- Ikasketa-planarekin koherentea izan behar du izenak, eta ez du nahasterik sortu behar.
- Tituluaren lanbide-ondorioak argi eta garbi zehaztuta egongo dira, bereziki, lanbide arautuetara bideratzen duten tituluaren kasuan.
- Iraute-araudiak tituluaren ezaugarrietara egokitu behar du, titulua ezartzen den garaian onartuta egon behar du, eta ikasleei ikasketak modu partzialean egiteko aukera eman behar die.

## **II. Irizpidea: Tituluaren justifikazioa**

Tituluak adierazgarria eta egokia izan behar du prestakuntza- edo ikerketa- esperientziari dagokionez, dagokion eremu akademikoarekin koherentea, eta/edo dauden antzeko ikasketekin bat datorrena.

- Erabilitako erreferenteek egokiak izan behar dute, eta tituluarekin zuzeneko lotura dutenak.
- Kontsulta-prozeduren emaitzak zuzeneko lotura izan behar du tituluarekin.
- Tituluaren lanbide- edo ikerkuntza-adierazgarritasuna behar bezala arrazoituta egongo da.
- Proposatzen du(t)en unibertsitate(ar)en testuinguruak, tradizioak, tituluen eskaintza globalak eta ahalmenak justifikatu behar du tituluak.

## **III. Irizpidea: Gaitasunak**

Ikasleek eskuratu beharreko gaitasunek ebaluagarriak izan behar dute, eta bat etorri behar dute tituluak emateko eska daitezkeen gaitasunekin eta Goi-mailako Hezkuntzarako Europar Esparruan finkatutako kualifikazioekin.

- Tituluan proposatutako gaitasunek argi eta zehatz idatzita egon behar dute, eta Goi-mailako Hezkuntzarako Europar Esparruan duten mailarekin lerrokatuta egon behar dute.
- Tituluan proposatutako gaitasunek ebaluagarriak izan behar dute, eta ikasle guztiek eskuratu ahal izan ditzaten bermatu behar da.
- Lanbide arautuetan jarduteko gaitzen duten tituluen kasuan, gaitasunek dagozkien ministro-aginduetan adierazitakoarekin bat etorri beharko dute.

## **IV. irizpidea: Ikasleen sarbidea eta onarpena**

Tituluak sartzeko, onartzeko eta ikasketen hasieran orientazioa emateko dituen bideak arautuko dituzten eta bide horien berri ikasleei argi eta garbi emango dieten sistema irisgarriak izan behar ditu.

- Gradu eta masterreko unibertsitate-ikasketetarako sarbideak eta unibertsitateetan onartua izateko prozedurek legearen arabekoak izan behar dute.
- Masterreko irakaskuntza ofizialetan onartua izateko irizpideak eta onarpen-prozedurek publikoak izan behar dute, argi idatzita egon behar dute, ez dute nahasterik eragin behar, eta tituluaren gai-eremuarekin koherenteak izan behar dute.
- Masterraren kasuan, prestakuntza-osagarriek egokiak izan behar dute tituluaren gai-eremuari dagokionez, eta koherenteak onarpen-irizpideei dagokienez.
- Kredituak onartzeari eta transferitzeari buruzko araudiak tituluaren ezaugarrietara egokitu behar du, eta titulua ezartzen den garaian onartuta egon behar du. Lanbide-esperientziagatiko kredituak eta titulu propioetatik eta/edo unibertsitatez kanpoko goi-mailako beste ikasketa batzuetatik datozen kredituak onartzea aurreikusten den kasuetan, onarpen hori tituluaren gaitasunen arabera egin beharko da.
- Gradu irakaskuntza ofizialen kasuan, kredituak onartu eta transferitzeari buruzko araudian, tituluaren 6 kreditu, gutxienez, onartzeko aukera ahalbidetu behar da unibertsitateko kulturaren, kirolaren, ikasleen ordezkartzaren, elkartasunaren eta lankidetzaren arloetako jardueretan parte hartzeagatik.
- Gradu Amaierako Lana eta Master Amaierako Lana ezin izango dira, inolaz ere, kreditutzat onartu.
- Egokitzapen-ikastaroetan sartzeko irizpide eta baldintzek eta haien curriculum-diseinuak koherenteak izan behar dute ikasketa-planarekin eta aurreko unibertsitate-antolamendutik ateratako tituludunen alde aurreko prestakuntzarekin.
- Titulua ematen denean hizkuntza ez-ofizialak aintzat hartuz gero, ikasleek titulu hori ikasteko gutxienez zer maila behar izango duten zehaztu beharko da.
- Tituluaren ezaugarriei eta, bereziki, sartzeko eta onartzeko sistemei buruzko informazioak ikasleen eskura egon behar du matrikulatu baino lehen.

- Sartu berri diren ikasleei orientazioa eta laguntza emateko prozedurak izan behar ditu tituluak, unibertsitatean txertatzen laguntzearen.
- Matrikulatu ostean, ikasleei orientazioa eta laguntza emateko prozedurak izan behar ditu tituluak, ikasketa-planeko gaitasunak eskuratzen laguntzearen.

## V. irizpidea: Irakaskuntzen plangintza

Ikasketa-plana modu koordinatuan diseinatutako prestakuntza-proposamen koherentea izango da, aldi jakin batean ikasleen dedikazioa kontuan izanik.

- Ikasketa-planak (egitura, edukiak, prestakuntza-jarduerak, kanpo-praktikak, ebaluazio-sistemak eta abar) koherentea izan behar du ikasleek eskuratu beharreko gaitasunei dagokienez.
- Ikasketa-planak barne-koherentzia globala izan behar du gaitasunen, edukien, ikaskuntza-emaitzen, prestakuntza-jardueren, ebaluazio-sistemen, irakaskuntza-modalitatearen, moduluen eta gaien denbora-banaketaren, eta haien izaera teoriko-praktikoaren artean.
- Ikasketa-planean modulu, gai eta irakasgai bakoitzari kredituak esleitzeko garaian eta denbora-plangintza egiteko garaian, kontuan izan behar da ikasturte akademiko bakoitzerako ECTSen guztizko zenbatekoak 60 izan behar duela, eta ikasturte akademiko osoan modu orekatuan banatuta egon behar dutela.
- ECTS kredituak prestakuntza-jarduerari esleitzeko prozesuak bat etorri behar du kreditu europarraren definizioarekin, ikasleen denbora banatzeari dagokionez.
- Emateko garaian hizkuntza ez-ofizialak sartzen badira, irakaskuntzen plangintzan argi eta garbi agertu beharko dute, baita tituluaren deskribapenean ere.
- Gradu-tituluak oinarritzko 60 ECTS, gutxienez, izan behar ditu; haietatik, tituluari dagokion jakintza-adarraren berezko gaiekin lotuta egongo dira gutxienez 36, eta bakoitzak gutxienez 6 ECTS izango dituen irakasgaietan zehaztuko dira, eta ikasketa-planaren lehen erdian eskaini.
- Gainerako kredituak jakintza-adar berdineko edo desberdineko oinarritzko gaiekin edo bestelako gaiekin osatu behar dira, betiere oinarritzkoak direla justifikatuz gero.

- Lanbide arautuetan jardutera bideratzen duten tituluaren kasuan, ikasketa-planaren proposamenek dagozkien ministro-aginduetan xedatutakoaren arabekoak izan beharko dute.
- Gradu-tituluan kanpo-praktikak sartzen badira, praktika horiek gehienez 60 ECTS izango dira; ahal dela, ikasketa-planaren bigarren erdian eskaini behar dira, eta ikasle guztiek praktikak egiteko aukera izango dutela bermatu behar da.
- Ikasketa-plana amaitzeko, gradu- edo master-amaierako lan bat egin eta jendaurrean defendatu behar da; lanak 6-30 kreditu izango ditu, ikasketa-planaren azken fasean egin behar da, eta tituluari atxikitako gaitasunak ebaluatzerantz bideratu behar da.
- Ikasketa-planean, planari egokitutako irakasleak koordinatzeko mekanismoak bildu behar dira.
- Hala badagokio, ikasketa-planean ikasleek mugikortasuna behar bezala antolatu behar da, eta tituluaren gaitasunekin bat datozen kredituak onartu ere egingo dira.
- Hala badagokio, ikasketa-planean hainbat plangintza bildu behar dira emateko moduan arabera bereizita, eta irakasteko modu desberdina izanagatik gaitasun berdinak eskuratzeko direla ziurtatu behar da.
- Tituluaren espezialitateen edo aipuen konfigurazioak eta plangintzak tituluaren ezaugarriekin koherenteak izan behar dute.

## VI. irizpidea: Giza baliabideak

Titulu bakoitzeko irakasleek eta laguntzeko beste giza baliabideek ikasketa-planean aurreikusitako gaitasunak eskuratzeko egokiak izan beharko dute.

- Erabilgarri dauden giza baliabideek eta aurreikusitakoek (kopurua, kategoria, irakasleek irakaskuntzako eta ikerkuntzako esperientzia, eta laguntzeko langileen gaikuntza) nahikoak eta egokiak izan behar dute proposatutako ikasketa-plana gauzatzeko, denboran planari eutsi ahal izango zaiola bermatuta (eskaintzen diren plaza kopuruaren eta irakaskuntza-modalitateen arabera).

## VII. irizpidea: Baliabide materialak eta zerbitzuak



Ikasketa-planean aurreikusitako jarduerak garatzeko beharrezkoak diren baliabide materialek eta zerbitzuek gaitasunak eskuratzeko egokiak izan beharko dute.

- Propio nahiz hitzartuak izan, erabilgarri dauden baliabide material eta zerbitzuek eta aurreikusitakoek (espazioak; instalazioak; laborategiak; ekipamendu zientifiko, tekniko edo artistikoa; liburutegia eta irakurketa-aretoak; teknologia berriak, eta abar) nahikoak eta egokiak izan behar dute proposatutako ikasketa-plana gauzatzeko, denboran planari eutsi ahal izango zaiola bermatuta (eskaintzen diren plaza kopuruaren eta irakaskuntza-modalitateen arabera).

### **VIII. irizpidea: Aurreikusitako emaitzak**

Tituluan, emaitzen aurreikuspena eta ikasleen ikaskuntza-emaitzak balioesteko prozedura orokor bat txertatu behar dira.

- Adierazleen zenbakizko balioak behar bezala justifikatu behar dira.
- Unibertsitateak ikasleen aurrerapena eta ikaskuntza-emaitzak balioesteko finkatuta duen prozedura orokorrak koherentea izan behar du eskuratu beharreko gaitasunekin, eta gaitasun horiek eskuratu direla baliozkotzeko denbora-mugarriak identifikatzeko aukera eman behar du (kanpo-proben emaitzak, gradu- edo master-amaierako lanak...).

### **IX. irizpidea: Kalitatea bermatzeko sistema**

Tituluak Kalitatea Bermatzeko Barne Sistema bat bildu behar du tituluaren kontrola, berrikuspena eta etengabeko hobekuntza bermatzeko.

- Proposatutako Kalitatea Bermatzeko Barne Sistemak (tituluaren edo zentroaren sistema propioa, edo unibertsitatearen sistema orokorra) ikasketa-plana egoki ezarri eta garatzen dela bermatu behar du.

### **X. irizpidea: Ezarpen-egutegia**

Tituluaren ezarpen-prozesuak denboran planifikatuta egon behar du eta, hala dagokionean, lehendik badiren ikasketa-planetako ikasleak plan berrira egokitzeko mekanismo bat ere aurreikusi behar du.

- Titulu berriaren ezarpen mailakatuko edo globaleko prozesuan, desagertuko den ikasketa-planeko ikasleen eskubideak errespetatu behar dira, eta egokitzapen-taulek publikoak izan beharko dute, bi tituluekin koherenteak izanik.